

KOSTUEN EGITURA

KOSTU FINKOAK

Gure enpresak bulego bat edukiko du eta beraz, haren alokairua kostu finko bat izango da. Baita ere, proiektuak diseinatzeko beharko ditugun aparatu elektrikoak eta noski, webgunearen hostinga izango dira ere kostu finkoak. Langileen soldata finkoa izango da, beharrezkoak dira webgunea eta proiektuen diseinuak aurrera eramateko. Marketinak dakartzan gastuak ere kontuan hartu behar ditugu, enpresa bezeroaren getu mantendu dadin, besteak beste, iragarkiak, propaganda...

KOSTU ALDAKORRAK

Kontratatu dugun enpresa kostu aldakorra izango da gure bezeroei energia berriztagarria emateko, noski energia berriztagarriaren horren prezioa aldakorra izango da, enpresa bakoitzak beharko duen kantitatea ezberdina izango delako. Elektrizitatearen kostua ere aldakorra izango da, hau da, haren erabileraren baitan egongo da prezioa.

Horrez gain, kostu aldakorren artean zergak ere badaude, enpresa orok ordaindu behar baititu. Sozietate zerga, Ondasun Higiezin Zerga, erosketa jakin batzuetako BEZa... araudia betetzeko konpromezua dugu estatu publikoari laguntzeko.

ZEHARKAKO KOSTUA

Gure bulegoa dugunez, argindarra ordaindu beharko dugu baina noski kostu aldakorra ere izango da, zenbat eta argi gehiago erabili orduan eta gehiago ordaindu beharko dugu.

